

## **Eibar - Piura Kirol Eskola.**

### **Piura, Peru. 2011.**

Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Gazteak Lankidetzan programari eta Egoaziari esker uda honetan nire bizitzako esperientziarik onena bizi izan dut Piuran (Peru). Gogotsu joan nintzen arren, joan baino lehenago nolabaiteko beldurra eta kezka sentitzen nituen nire etxetik kanpo hiru hilabete egongo nintzelako. Baina hara iritsi bezain beste sentipen horiek desagertu ziren han izan nuen harreragatik, hango GKE eta familiaren aldetik.

Uztailaren zazpian iritsi nintzen eta han nengoela konturatzeko astirik gabe Eibar-Piura Kirol Eskolan lan egiteari ekin nion. Eskolak baliabide urriko neska eta mutilekin lan egiten du batik bat, kategoria ezberdineko hainbat talde osatuz. Era honetara, gazteak bere auzoko girotik irten eta kirolean bizitza ikuspegi zabalagoa lortu dezakete, alferkerian ibili edo semealabak gazteegi eduki beharrean.



Nik neska gazte (18 eta 25 urte bitartean) eta nesken haur taldearekin (10 eta 13 urte bitartean) lan egin nuen, urte honetan sortu da azken hau. Neskekin futbolaren arloan lan egitea eskolaren helburutako bat ere bada, futboleko emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde egitearena. Askok emakumeak futboleko aritzea ez baitute ongi ikusten. Eskolak ez du inor kanpoan uzten baliabide gehiagoko haurrak ere onartzen baititu. Kirol eskola denek, elkarrekintzaz, aukera berdinak izan ditzaten saiatzen da. Benetan sinesgaitza egin zitzaidan garraioa ordaintzeko dirurik ez duten neska batzuk urrutitik korrika entrenamendura etortzea Eibarren koloreak defendatzeko.



Neskak entrenatu eta motibatzeaz gain eskolak nire egonaldiaz baliatu zen bere izena ezagutzera emateko eta etorkizunerako proiektuak koordinatzeko. Gainera, Piurako Hezkuntza Ministerioaren eskutik (UGEL) beste gai batzuetako Lehen Hezkuntzako irakasleei kapazitazio ikastaro bat emateko aukera eman zidan.

Nire ezaguera profesionala erabiltzeko aukera izan dut egonaldi honetan. Baina gehien bat beste errealitate bat bizitzeko balio izan dit. Egia da hiri batean egotean ezberdintasunak ez direla hain handiak, herri batekin alderatuz behintzat. Baina han egotean gure kultura eta hain barneraturik ditugun eta garrantzirik ematen ez diegun gauzak, errealitate bakarra ez direla konturatu naiz. Gauza gutxi dutenak disfrutatzen dutela ikusi dut eta gainontzekoen elkartasuna aprobetxatzen dakitela ere bai. Gauzak guk baino gehiago beloratzen dituzte. Honek nire inguruan ditudan pertsonak gehiago baloratzera bultzatu nau eta gauza materialak gutxiago. Gainera, esperientzia honek erakutsi dit kirola eta integrazioa batu daitezkeela, eta nire ogibideak zein bide jarraitu behar duen.

Lerro hauetatik Eibar KEri Eibar-Piura Kirol eskola sustatuz jarrai dezan eskatu nahiko nioke, materiala eta ahal duen guztia bidaliz. Umeei ilusioz erabiltze baitituzte. Eta Egoaizari bere jarduerari jarrai dezan, oso polita eta emankorra delako.

Azkenik, esperientzia honetan nirekin egon diren pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiet; eskolako neskei bere esker onagatik, Wilmer eta Juliori (eskolako presidente eta entrenatzailea) beraien gertutasunagatik eta jasotako tratuagatik, nire Peruko familiari lanetik kanpo eman dizkidaten momentu onengatik, Itxasori esperientzia hau biona baita, eta Egoaizari, aukera emateagatik eta urrutitik laguntzeagatik.

Eskerrik asko.

**Beatriz Fragua**